



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **UDALBATZARRAK 2016ko URRIAREN 25ean EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

2016ko urriaren 25ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakartzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Koldobika Jauregi Zinkunegi  
Jose Ramon Hernandez Cristobal  
Xabier Mugika Letamendia  
*Onintza Gorostidi Murua*

Bere ezin etorria azaltzen du: Uxue Etxebeste Eizagirre

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
2. Fakturak eta ordainketak.
3. 2017 urterako udal ordenantza fiskalak eta udal zerbitzuengatikoko tasa eta prezio publikoen ordenantzak onartzea, hala bada.
4. Lankidetzaren hitzarmenaren onspena, Alkizako Udalaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren artekoa, infomazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko.
5. Beste batzuk.
6. Erregu, galdera eta mozioak.

### **LEHENENGO PUNTUA** **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

32/2016 Alkatetza Ebazpena, urriaren 20koa, Poligono 1,411 partzelan, Udalak garbitutako terrenoak ahal den heinean garbi mantentzeko konpromisoa hartzea, ebazten duena.

**BIGARREN PUNTUA**  
**FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

ELECTRICIDAD ZIZURKIL	242,00
CALPARSORO INDUSTRIAL	18,59
BIDATEK	471,90
IZADI	152,94
IBERDROLA	53,18
MOVISTAR	79,28
MOVISTAR	71,40
ARGITU	213,73
MUSIKANAIZ	617,10
ENEKO ITURBE	338,80
EBA ERKIZIA	1.249,33
M.R.W.	135,76
ULAHÍ	526,35
EGIMENDI	47,37
SUMINISTROS ZELAI	20,47
TOLOMENDI	152,50
LYRECO	81,53
AUDAX	188,65
AUDAX	742,25
EGIMENDI	36,00
TRANSPORTES ALBERTO ROTETA	931,70
ARRATE IRRATIA	108,90
BERRI LANTEGIA	46,61
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	934,12
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	363,45

**ERABAKITZEN DUTE**

LEHENA.- Guztira **7.823,91** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

### **HIRUGARREN PUNTUA**

## **2017 URTERAKO UDAL ORDENANTZA FISKALAK ETA URAL ZERBITZUENGATIKO TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZAK ONARTZEA, HALA BADA**

Ikusirik 2017 ekitaldirako Ordenantza Fiskal eta Tasa eta Prezio Publikoen udal ordenantzak eguneratzeko eta aldatzeko, egindako ondorengo proposamena:

### **- ZERGAK**

- ***Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotak zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen ordenantza fiskala.***

Tarifak mantentzea proposatzen da.

Beraz, Ordenantzaren eranskina era honetara gelditzen da:

- Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko zergari aplikagarri zaion karga tasa zoru industrial edo tertziarioan: %0,198a.
- Gainerako hiri ondasun higiezinari aplikagarri zaion karga tasa: %0,198a.
- Landalur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: %0,892a.

Hobariak mantentzea proposatzen da:

-Kuota osoaren % 30eko hobaria subjektu pasiboak famili ugarien titularrak direnean.

-Kuota osoaren % 25eko hobaria, eguzki energiaren aprobetxamendu termikoa edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinatarako.

-Obra berriko higiezinak edo urbanizazio prozesuan daudenak % 50.

- ***Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ordainarazpenerako zenbait ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskala.***

Ordenantzaren eranskina mantentzea proposatzen da:

Zerga honen kuotak zehazteko finkatutako gutxienezko kuoten gehikuntza-koefizientea % 1,68-an mantentzea proposatzen da.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

- **Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kuota zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen Ordenantza Fiskala.**

%1,63ko koefizientea aplikatzea proposatzen da.

Beraz, Ordenantzaren eranskina era honetara aldatzea proposatzen da:

Ibilgailu mota eta potentzia Koefizient. % 1,63

Ibilgailuaren potentzia eta mota	Kuota eurotan
<b>a) Turismoak</b>	
9 zaldi fiskaletik beherakoak	29,39
9tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak	58,78
12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak	97,96
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak	137,15
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	176,33
20 zaldi fiskaletik gorakoak	215,52
<b>b) Autobusak.</b>	-
21 plaza baino gutxiagokoak	135,78
21etik 50 plazara bitartekoak	193,38
50 plaza baino gehiagokoak	241,73
<b>c) Kamioiak.</b>	-
1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	68,92
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	135,78
2.999tik 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	193,38
9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	241,73
<b>d) Traktoreak</b>	-
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	28,80
16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak	45,27
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak / De más de 25 caballos fiscales	135,78
<b>e) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdiatoiak</b>	-
1.000 baino gutxiagoko eta 750 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak	28,80
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	45,27
2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	135,78



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

<b>f) Bestelako ibilgailuak</b>	-
Zikomotoreak	7,20
125 cc-ra bitarteko motozikletak	7,20
125 cc-tik 250 cc-ra bitarteko motozikletak	12,34
250 cc-tik 500 cc-ra bitarteko motozikletak	24,69
500 cc-tik 1.000 cc-ra bitarteko motozikletak	49,37
1.000 cc-tik gorako motozikletak	98,75

#### **1.4. Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskala.**

Ondorengo tarifak eta hobariak mantentzea proposatzen da.

- Nekazaritza-Abeltzaintzako esplotazio munduari lotutako ekitaldi, eraikuntza, obra... benetako kostuaren ..... % 2,5
- Babes Ofizialeko etxebizitzak. Benetako kostuaren ..... % 2,5

Besteak: ..... % 5,00

#### **HOBARIAK:**

1,-% 50 eko hobaria, eraikuntza, instalazio eta obrak ezgaitasun bat duten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituztenean. Ondoren aipatzen diren baldintzak bete beharko dira:

-Ezgaitasun kalifikazioa edukitzea.

-Mugikortasun baremoan, gutxienez, 7 puntu izatea.

-Kuota zehazteko, obraren aurrekontu osoa hartuko da kontuan, baldin eta obraren helburu bakarra eraikina ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzea bada.

-Obrak eraikina berritzeko helburua badute, baina aurrekontuan beste partida batzuk ere jasotzen badira ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzeko egokitzapenez gain, dagokion partidak bakarrik hartuko dira kontuan hobaria eskubidea duen kuota zehazteko. Horretarako, nahitaezkoa izango da aurrekontua ondo bereizita aurkeztea helburu hori duten obren zatian.

2.-Abelgorrientzako estabulazio berriak eraikitzeak eta baita ere Udal Planeamenduko AA.SS.etako katalogoan sartutako eraikuntzak berritzeko eta birgaitzeko obrak, hain zuzen ere Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailaren txosten baimenean bildutako baldintzak garatuz babestuko diren elementu berezietan egin daitezkeen jarduerak helburu dutenak. Zerga kuotaren % 95eko hobaria izango dute.

#### **1.5. Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ondorengo tarifak proposatzen dira:

Portzentaiak:

- a)1 urte 5 urtera bitarteko % 3,6
- b)10 urte artekoa % 3,4
- c)15 urte artekoa % 3,1
- d)20 urte artekoa % 2,9

Karga tasa: % 6,1-a aplikatzea proposatzen da.

## 2. TASAK

### **2.1. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza.**

#### **2.1.1. Ur horniketa.**

Tarifen modifikazioan burututako proposamena igotzearena izan da:

- Etxeko erabilerako ur hornidura:

- \* Gutxienerako 45 m<sup>3</sup> 12,00 euro.
- \*Seihilabeteko 45 m<sup>3</sup> gutxieneratik aurrera: 0,39euro.

- Merkatal edo industri erabilerara zuzenduriko ur hornidura:

- \* Gutxienerako 90m<sup>3</sup> 31,61 euro.
- \* Seihilabeteko 90 m<sup>3</sup> gutxieneratik aurrera: 0,46 euro.

- Udalerritik kanpo kokaturiko eraikinetako ur hornidura:

- \*M3 bakoitza 0,85 euro.

- Mantenimendu kuota 10 euro seihilabeteko

- Hondakinen isurketen kuota(Plazako auzoa) Ur errezioboaren % 34,00a

Hobariak: Gizarte ongizate zerbitzuak proposatutakoak

#### **2.1.2. Zabor bilketa zerbitzua**

Tarifen modifikazioan burututako proposamena tarifak igotzearena da:



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Etxez-etxeko bilketa, hileko.....16,00 euro  
Industria, komertzio eta taberna bilketa, hileko..... 29,00 euro

HOBARIAK: Gizarte ongizate zerbitzuak proposatutakoak

### **2.1.3. Dokumentu administratiboen igorpena:**

Ordenantzaren eranskina mantentzea proposatzen da:

- 1.- Animalia arriskutsuen inskripzioa: 25 euro.
- 2.- Hirigintza kontsultak: 65,00 euro.
- 3.-Segregazio baimenak:
  - \*Segregazio baimenak, 5 partzela arte 75,00euro.
  - \*Segregazio baimenak, 6 partzelatik gora 150,00euro.
- 4.-Lehen erabilera baimenak 100,00 euro.
- 5.-Lur mugimendurako baimenak.....0,40 m3 bakoitza
- 6.-Don Juanena etxeko kirol gelaren erabilpena:
  - \*Don Juanena etxeko kirol gelarako bazkidetza urtekoa...60€
  - \*Don Juanena etxeko kirol gelarako bazkidetza hiruhilekoa...20€
  - \*Don Juanena etxeko kirol gelarako bazkidetza hilerokoa...10€
  - \*Don Juanena etxeko kirol gela erabiltzea.....2€ eguneko
- 7.-Obra lizentzien izapidetza:
  - \*60.000 euro baino gutxiagoko aurrekontua duten obratako lizentzien izapidetzea.....30 euro
  - \*60.000 euro baino gehiagoko aurrekontua duten obratako lizentzien izapidetzea.....50 euro
- 8.-Ihardura baimenak:
  - a)Klasifikatutako jarduera.....110,00 euro
  - b).Klasifikatutako jardueraren aurretiazko komunikazioa.....80,00 euro
- 9.- Baimenik gabeko edo ezkutuko obra baimenaren legeztapena: Obra lizentzia emateagatik ateratako tasaren %200.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

10.-Buzoietako giltzaren kopia eta zerraila aldatzea..... 7€

**2.2. Udal Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak:**

**2.2.1.- Udal bide publikoen lurzoruan, zorupean edo hegalduran erabilera privatibo edo aprobetxamendu bereziak egiteagatik tasa.**

Hornidura eta telekomunikazio enpresak.....%1,50

**2.2.2.- Hilerriko zerbitzuengatik tasa.**

Ondorengo tasa mantentzea proposatu da:

- Lurperatze tasa: 175,00 euro.
- *Lurrean dauden gorpuzkiak bertatik ateratzea.....50,00 euro*

Ikusirik Udaleko Behin behineko Idazkari Kontuhartzaileak 2016ko urriaren 20ean egindako txostena, zeinetatik ondorioztatu daitekeen aipaturiko proposamenak araubidearekin bat datozela.

Gaia azterturik Udalbatzak aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Aipaturiko proposamena akordioa bihurtzea eta beraz, azaldutako baldintza beretan onestea.

BIGARRENA.- Aurreko puntuak aipatzen dituen akordioak jendaurrean jartzea 30 lanegunez, ondorioztatu daitezken erreklamazioak edo oharren efektuetarako. Horretarako dagokion iragarkia argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Iragarki Taulan.

HIRUGARRENA.- Hartutako akordioak eta Ordenantzen eta beraien GEHIGARRIEN aldaketak behin-betikoak bihurtuko dira, beste akordio berriren beharrik gabe, informaziorako arauzko epea pasa ondoren inolako erreklamaziorik edo oharrik egin ez balitz. Beraz, 2016 urteko urtarrilaren 1ean ipiniko lirateke indarrean Ordenantza Fiskal eta Tasa Publikoen Ordenantza berriak.





ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

LAUGARRENA.- 2017 ekitaldirako ondorengo Zerga Egutegia finkatzea:

**2017 ekitaldirako ondorengo Zerga Egutegia finkatzea:**

1.- HOBARI ESKAERA:

- 2017 urteko otsailaren 1etik martxoaren 1arte.

2.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK:

2017 urteko maiatzaren 2tik uztailaren 3 arte.

3.- URA TASA:

1. seihilabetea: 2017 urteko iraila 1etik azaroaren 3a bitartean.
2. seihilabetea: 2018 urteko otsailaren 1etik apirilaren 2ra bitartean.

4.- ETA ZABORREN TASA:

- 1.seihilabetea: 2017 urteko uztailaren 3tik irailaren 1a bitartean.
- 2.seihilabetea: 2018 urteko urtarrilaren 2tik martxoaren 2ra bitartean.

**LAUGARREN PUNTUA**

**LANKIDETZA HITZARMENAREN ONESPENA, ALKIZAKO UDALAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ARTEKOA, INFORMAZIOAREN, ADMINISTRAZIOAREN ETA KUDEAKETA ELEKTRONIKOAREN ESPARRUKO ZERBITZUAK ELKARRI EMATEKO.**

*Onintza Gorostidi zinegotzia 20.50 orduetan bertaratzen da.*

Ikusirik Alkizako Udalaren eta Euskal autonomia erkidegoko administrazioaren arteko Lankidetza-hitzarmena prestatua dagoela, informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko.

Ikusirik, Alkizako Udala interesatuta dagoela aipaturiko Lankidetza-hitzarmena onesteko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DU:**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

LEHENA: Alkizako Udalaren eta Euskal autonomia erkidegoko administrazioaren arteko Lankidetzeta-hitzarmenaren onespena, informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko.

BIGARRENA: Jon Umerez Urrezola, Alkizako Udaleko Alkate-Lehendakari jaunari aipaturiko hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazio sailari ematea.

### **BOSTGARRENPUNTUA** **BESTE BATZUK**

#### **5.1.UDAL JABETZAKOA DEN DON JUANENA ERAIKINEAN DAGOEN APARTAMENTUAREN LAGAPEN KONTRATUA, HALA BADA**

Ikusirik K.M. jaunak eginiko eskaera, non Udalak duen apartamentua denboraldi batean hau erabiltzeko baimena eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### **ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: K.M.U. jaunak eginiko eskaera onestea, hau da, Udalak Don Juanena etxean duen apartamentua erabiltzeko baimena ematea, hilean 250.-euro ordaindu beharko dituelarik alokairu moduan. Argindarra, gasa, ura eta zaborrak bere gain izango direlarik.

BIGARRENA: K.M.U. jaunari jakinaraztea, Udalak Don Juanena etxean duen apartamentua erabiltzeko baimena urte beterako izango dela, hau da, 2016ko azaroaren 1etik 2017ko urriaren 31bitarte.

HIRUGARRENA: K.M.U. jaunari jakinarazi, Udalaren apartamentua erabiltzen hasi aurretik, Udalak prestatutako kontratua sinatu beharko duela.

LAUGARRENA.- Akordio hauen berri interesdunari ematea.

### **SEIGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

#### **6.1. AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA:**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## “EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA”

Ondoren Eudel-ek aurkezturiko Adierazpen instituzionala irakurtzen da, non ondorengo dioen:

*Nazio Batuen Batzar Nagusiak arazoaren 25a izendatu zuen emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna, eta, egun hori kontuan hartuta, bat egiten dugu emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta horien aurka borrokatzeko 2011ko Europako Hitzarmeneko oinarriekin, ‘Istanbuleko Hitzarmena’ delakoarekin; izan ere, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Europako lehenengo tresna juridiko loteslea da, baita giza eskubideen urraketa larri horren aurrean irismen handiena duen nazioarteko ituna ere.*

*Bertan, estatuen ardurapeko eremu guztiak jorratzen dira: indarkeria prebenitzea, gizartea sentsibilizatzea (batez ere gizonak eta haurrak), erakundeen arteko koordinazioa sustatzea, erasotzaileen aurkako ekintza judizialak hastea eta biktimekiko babesa, laguntza eta kalte-ordaina bermatzea, erabili daitezkeen bitartekoen bidez.*

*Istanbuleko Hitzarmena 2014ko abuztuan berretsi zuen Espainiako Estatuak, eta, hartara, arau guztiz loteslea bilakatu zen, erakunde zentral eta autonomikoetan zein tokiko erakundeetan. Hitzarmena funtsezko tresna dela uste dugu, eta emakumeen aurkako indarkeria errotik ezabatu ahal izateko esparru gisa baliagarria da.*

*Horiek horrela, Istanbuleko Hitzarmena ezartzen dela bermatzeko, Alkizako Udalak konpromisoa hartzen du Hitzarmenean xedatutako neurrien kalitatezko estandarrak eta betearazpen-maila egiaztatzeko, baita gai horri loturiko nazioarteko, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko beste arauetakoak ere.*

*Hona hemen neurri zehatz batzuk:*

- 1. Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen esparrura eramatea.*
- 2. Emakumeen kontrako indarkeria mota desberdinak identifikatzea eta aurre egiteko dinamikak bultzatzea, normalizazioan ez erortzeko makro zein mikro-erasoak salatuz.*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

3. *Harreman intimoetako emakumeen aurkako indarkeria, adierazpen ugaritako indarkeria sexuala, emakumezkoen mutilazio genitala eta jazarpen sexista sartzea emakume eta neskatilen aurkako indarkeriaren kontzeptuaren barruan.*
4. *Hitzarmena ezartzeko esparruan sartutako indarkeriaren modu guztiei buruzko gaien inguruko datu estatistiko datu xehe eta bereizleak jasotzea, tarte erregularren arabera.*
5. *Generoaren ikuspegia eta diskriminazioaren debekua ezartzea, indarkeriaren esparruko printzipio nagusi gisa.*
6. *Indarkeriari aurre egiten dioten emakumeei rol nagusia esleitzea programen ebaluazioan eta jarraipenean, eskubideen titular gisa.*
7. *Emakumeen intimitate-eskubidea ezartzea arretako bide osoan.*
8. *Indarkeriaren aurkako haurren eskubideak berariaz aipatzea, batez ere, neskatilen eskubideak.*
9. *Arretako langileen prestakuntza derrigorrez aitortzea, eta ez sentsibilizaziorako ekintza soil gisa.*
10. *Gizarteak emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen eta borrokatzen laguntzea sustatzea. Berdintasun politikak sustatuz eta eraso matxisten kontrako protokoloak indartuz edo martxan jarriz eta gizartearen erantzun soziala sustatuz.*
11. *Erakundeen arteko koordinazioa bultzatu tokiko protokoloak martxan jarriz, arreta zerbitzuak hobetzeko eta indarkeriari aurre egiten dieten emakumeen birbiktimizazioa ekiditeko.*
12. *Mugimendu feministarekin eta emakume elkarteekin elkarlana bultzatu.*
13. *Gai honetan beharrezkoak diren neurrien finantzaketa bermatzeko mekanismo zehatzak ezartzea.*

*Bukatzeko Alkizako Udalak bat egiten du azaroaren 25erako deituak izan diren mobilizazioekin eta jendarte osoari deia luzatzen dio parte har dezan.*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, azaroaren 25eko adierazpena instituzionala: Emakumenganako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna” bere osotasunean onesten du.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 21.20 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*